



• DEABRUAREN ABOKATUA •

“Izatez aski psikodelikoa naiz eta ez dut gehigarrik behar”

Roge Blasco | Hitz egin arazlea

Komunikaziorako ezohiko dohaina duen kazetari errepikaezina. *Underground* kulturaren aitzindari txintxoaren izan zen.

FERMIN ETXEGOIEN
Argazkia: Iñigo Azkona

Hogei urte baino gehiago daramatzazu *Levando Anclas* (Aingurak altxatzen)... Noiz abiatuko zara behingoz?

Horretan datza kontua: 24 urtez abiatu nahian, baina ezin zilbor hestea moztu.

***La Casa de la Palabra* (Hitzaren etxea) zure Radio Euskadiko saioaren izena entzun eta Eliza datorkit gogora...**

Baita *La Casa de la Pradera* (Pentzeko etxe txikia) ere, ezta? Ekuatore Ginea bisitatu ostean asmatu nuen. Bertan herrixka bakoitzean etxe komunala dago, egunean gertatutakoak herritarrek elkarri kontatzeko. Hitzaren Etxeak deitzen dira.

Egia da oraindik urduri jartzen zarela irratsaio bakoitzaren aurretik?

Musikaria eszenatokira igo aurretik bezala. Elkarriketatuak kontatzen dutena bizi nahi dut, entzuleei kale egin eta paperak galdu gabe.

Surfaren aitzindari izan zinen... Euskadin tramankulurik sofistikatuena goitiberak zirenean!

1973ko udan gertatu zen: ilea luzatzen utzi, burua rock-az bete eta ohol baten gainean olatuetan saiatu. Errebelazioa izan zen, ia dibinoa. Baina pijo gehiegi zegoen eta hori ez dut gustuko.

Zure kazetari teknika elkarriketatua hitz egiten jarrean datza... Nola arraio lortzen duzu?

Elkarriketatuari konfiantza handia ematen saiatzen naiz, beraren istorioak barruraino eginez. Pertsona lehenago ezagutu zein elkarriketa prestatuz gero seguruago sentitzen naiz.

Alkohola ez dut ia gustuko eta drogei barre egiten diet, baina ezin bizi ninteke rock and roll gabe, okerrera doakidan gaixotasuna da. Izatez aski psikodelikoa naiz eta ez dut gehigarrik behar.

Metroan zoazela jendeak hitz egiten al dizu?

Batzuk oraindik gogoratzen dira *Dr. Livingstone, supongo* aurkezten nuen garaiaz, hamahiru urte pasa izan arren. Nire aldamenen eseri eta eztei-bidaia kontatzen didate! Oso dibertigarria da.

***Muskaria* oso aldizkari punk genuen, baina zuretzat orain interesgarriena... Ukrainako rock sinfonikoa da!**

Rock progresibo eta sinfonikoaren hasierakoa naiz. Genesis eta Peter Gabriel, Van Der Graft Generator, King Crimson... niretzat sublimeak ziren. Punka etorri eta ahaztu nituen. Baina barru-barruan neramatzen eta 1997an berrekin nion rock sinfonikoari, tokirik ezustekoenetan egiten dutena barne.

Okerren atera zaizun bidaia?

Sri Lanka. Hilabetez militar batek zaindu ninduen. Gainerakoetan oso ongi pasatu dut, Port Aventura (Katalunia) egin dudana azkena barne.

***Doctor Livingstone supongo* ulertzeko moduko arrazoiengatik bukatu zen?**

Ez dakit zergatik ez zuen jarraitu klasiko itxura (1987-1995) hartua zuen saioak. Telebista aro berria zetorrelako, suposatzen dut. Lehiaketak, reality show eta txutxumutxuak... Nolanahi, kamerari gero eta beldur handiagoa nion!

Abokatua izateko ikasi zenuen. Defendatu zeure burua...

Ez daukat defentsarik. Hiru urte eman nituen bi ikasgai gaingaitzeko. ■